



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailak 26**

**Vitoria-Gasteiz, 26 de julio de 2022**

## Lehendakaritza

### KANPO-HARREMANEN EREMUAN GAZTEAK PRESTATZEKO BEKEN DEIALDIA EGIN DA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran baimendu du kanpo-harremanen eremuan gazteak prestatzeko beken 2022-2023rako deialdia; zenbateko osoa 288.000 eurokoa da.

Guztira hamabi beka deituko dira, honako modalitateetan: Europako gaiak (4); Kanpoko Euskal Komunitatea (4); eta Kanpo-Harremanak (4).

**Europako gaietako** beken onuradunek honako lekuetan gauzatuko dute euren jarduera:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen.
- Bi beka Euskadik Europar Batasunean duen ordezkartzan, Bruselan.

**Kanpoko euskal komunitatearen** alorreko beken onuradunek honako lekuan gauzatuko dute euren jarduera:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen.
- Beka bat Euskadiren Argentina-Mercosurreko Ordezkartzan, Buenos Airesen.
- Beka bat Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkartzan, New Yorken.

**Kanpo-harremanetako** beken onuradunek honako lekuan gauzatuko dute euren jarduera:

- Bi beka Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen.
- Bi beka Euskadiren Txile, Peru eta Kolonbiako Ordezkartzan – Bata Txileko Santiagon eta bestea Bogotan –.

Euskadik kanpoan dituen ordezkartzetarako diren beka 24.000 eurokoak izango dira (bakoitza), eta 16.000 eurokoak jarduera Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian, Gasteizen, gauzatu behar dutenen kasuan.

## Lehendakaritza

### **EUSKO JAURLARITZAK BERRIRO EHINGO DIO GAZTEMUNDU PROGRAMARI PANDEMIAREN ONDOREN**

Eusko Jaurlaritzak berriro ekingo dio Gaztemundu programari, pandemiaren ondoren, Gobernu Kontseiluak gaur onartu baitu Euskadin egonaldi bat egin nahi duten Euskal Etxeetako gazteei zuzendutako ekimena.

Edizio honetan, helburua da egungo Euskadiren ikuspegi bat eskaintzea, bere bilakaera historikoarekin eta tradizio kulturalarekin lotuta, leku esanguratsuetan bisitak eta prestakuntza-jarduerak eginez.

Zehazki, egonaldia abenduaren 4tik 20ra bitartean egingo da Euskal Etxeetako bazkide diren 18 eta 35 urte bitarteko 20 gazterekin.

Deialdia EHAAn argitaratu ondoren aurkeztuko dira eskabideak, helbide elektronikoko honetan: [euskaletxeak@euskadi.eus](mailto:euskaletxeak@euskadi.eus)

Gaztemundu programa Basque Country Estrategiaren baitakoa da –estrategia horren helburuetako bat da Euskadi kanpoan proiektatzea– eta 1996an sortu zuen Eusko Jaurlaritzak Euskadiren egungo errealitatearen alde guztiak ezagutarazteko eta belaunaldi berriei Euskal Etxeetako bizitza aktiboan integratzeko aukera emateko.

Ordutik hona, 800 bat lagunek hartu dute parte programa horretan (gehienak Argentinakoak) eta horietako asko orain Euskal Etxeetako zuzendaritzetako kideak dira edota ardura postuak betetzen dituzte.

## Lana eta Enplegua

### GOBERNU KONTSEILUAK 5 MILIOI EUROKO EZOHIKO LAGUNTZAK ONARTU DITU UKRAINAKO GERRAK ERAGINDAKO GIZARTE- EKONOMIAKO ENPRESENTZAT

- **Gerrak eta egoera ekonomikoak eragindako aparteko neurriek 2022rako aurrekontuan jasotakoa adina dira, eta, guztira, 15 milioi euro inguru dira**

Gobernu Kontseiluak Gizarte Ekonomiako enpresei zuzendutako laguntza-sorta bat onartu du gaur. Horien artean, bost milioi euroko deialdia nabarmendu behar da, Ukrainako gerraren eta Errusiari ezarritako zehapenen ondorioz galerak izan dituzten enpresentzat. Gainera, dirulaguntzak daude bazkideak sartzeko, elkarte-egiturak sendotzeko eta langileek enpresan parte hartzeko.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, bost milioi euroko aparteko laguntza-sorta bat berretsi da, Ukrainako gerraren eta Errusiari ezarritako zehapen ekonomikoen ondorioz galera ekonomikoak jasan dituzten gizarte-ekonomiako enpresei zuzendua. Laguntzak gertakari hauek finantzatzeko izango dira:

- Ukrainako edo Errusiari ezarritako zehapenek eragindako herrialdeetako bezeroekin edo enpresekin kobratu ezin diren fakturak, baldin eta horien kredituak aseguratuta ez badaude.
- Ukrainan edo eraginpeko herrialdeetan lan egiten duten enpresako langileen eta haien filialen zuzeneko kostuak, Errusiari ezarritako zehapenak direla-eta, baldin eta aseguru-entitateek edo aseguru-mutualitateek aseguratuta edo babestuta ez badute kontingentzia.
- Enpresaren aktiboan dauden material- edo produktu-eskaerak, Ukrainara edo zehapenek eragindako herrialdeetara esportatu ezin direnak eta berrerabilgarriak izateko aukerarik ez dutenak.
- ibilgetuaren galera kontabilitate-balio garbiaren arabera, galera aseguratuta ez badago.
- gerrarekin zuzenean lotutako lehengaien kostuaren igoera eta ondorengo zehapenak.

Diruz lagundu daitezkeen egitateen kontabilitate-oharrak 2022ko otsailaren 1etik aurrera islatu beharko dira, eta urriaren 31 baino lehen amaitu beharko dira.

Ezohiko laguntzei buruzko agindu hori, batetik, Gobernu Kontseiluaren joan den apirilaren 12ko erabakiak (Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei buruzko aurrekontu-neurriak hartzeko agindua jasotzen zuen) eta, bestetik, Eusko Legebiltzarraren apirilaren 8ko osoko bilkura monografikoan hartutako ebazpenak zehazten dute.

Era berean, beste hiru laguntza-sorta onartu dira. Batetik, **gizarte-ekonomiako enpresetan** —batez ere, lan elkartuko kooperatibetan eta lan-sozietateetan—

**bazkide langile izatera pasatzen diren pertsonak sartzeko** helburua dutenak. 500.000 euro ditu, eta lau kolektiborentzat da: langabetuentzat, gizarte-ekonomiako enpresa batean bazkide langile diren eta besteren konturako lan-kontratua duten bazkide ez diren langileentzat; desgaitasuna duten pertsonentzat; eta gizarte-ekonomiako sozietateetan bazkide gisa sartzeko diren nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-ustiategien eta ustiategi mistoen titularrentzat.

Deialdietako beste batek 685.800 euro ditu Euskal Autonomia Erkidegoko **gizarte-ekonomiako enpresen eta entitateen elkarte-egiturak finkatzeko**, baldin eta, nortasun juridiko propioa izanik, haien interes amankomunak ordezkatzeko eta defendatzeko: lan-sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak; lan elkartukoak ez diren kooperatibak, izaera konfederaleko elkarteak eta gizarte-ekonomiako entitateen integrazio-erakundeak; ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu-zentro berezietako elkarteak; eta Gutxienez bi urteko antzintasuna duten langile autonomoen sektorearteko erakundeak.

Azkenik, 140.000 euroko deialdi bat onartu da, **langileek Gizarte Ekonomiako enpresen kudeaketan eta organoetan parte hartzea** erraztu eta hobetuko duten tresnen garapena eta ezarpena finantzatzeko. Gizarte Ekonomiakoak ez diren enpresen kasuan, laguntzak langileek parte hartzeko plan bat egitea eta ezartzea finantzatzeko, langileek enpresan parte hartzeko ereduak definitzeko tresnak diseinatzeko eta enpresa partaidetuen ereduak zabaltzeko erabiliko dira.

Lau deialdi horiekin, Gizarte Ekonomiarako laguntzen paketea osatzen jarraitzen da. Aurten, hasieran aurreikusitako zenbatekoa (7,65 milioi) ia bikoiztu da, eta, 2021arekin alderatuta, jada % 29ko hazkundera bazuena. Gerraren eta egoera ekonomikoaren ondorioz abian jarritako ezohiko neurriek 2022rako aurrekontuan jasotakoa adina osatzen dute ia, guztira 15 milioi euro ingurura iritsi arte. Jaurlaritzak Euskadiko Gizarte Ekonomiari gehien laguntzen dion unea da. Eta oraindik falta dira ekintzaile izateko laguntzak eta lankidetzak-laguntzak, laster onartuko direnak.

## Lana eta Enplegua

**LANBIDEK HIRU TOKI-ERAKUNDE BERRITARA ZABALDU DU  
GIZARATERATZEKO ETA LANERATZEKO PROGRAMA BGD ETA DBE  
PRESTAZIOAK JASOTZEN DITUZTENENTZAT**

- **Europako funtsetako 763.000 euro bideratuko dira hiru proiektu berritara: Tolosa, Bermeo eta Arrasate, hasieran onartutako hamabi proiektuei gehituko zaizkienak**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hiru toki-erakunde berritara zabalduko du BGD eta/edo DBE jasotzen duten pertsonak gizarateratzeko eta laneratzeko programa, guztira 763.000 euro. Kopuru hori Europako funtsetatik dator, eta beste hamabi erakundetako proiektuetarako maiatzean emandako 3,6 milioiei gehitzen zaie.

Idoia Mendia lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du zabaltze hori, Tolosa, Bermeo eta Arrasateko 35 pertsonak parte har dezaten enplegu eta prestakuntzako proiektu pilotu honetan. Lehen fasean, iraupen luzeko 186 langabek hartu zuten parte, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera eta/edo Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen zutenek. Orduan, erakunde esleipendunak Gasteiz, Zumarraga, Irun, Sestao, Santurtzi, Bilbo, Amurrio, Ermua, Leioa, Urduña eta Muskizko udalak izan ziren, baita Enkarterriko Mankomunitatea ere.

Orain hautatutako erakundeek, Tolosaldea Garatzen erakundeak, eta Bermeoko eta Tolosako udalak, garatzen diren inguruneko beharrei erantzuten dieten proposamenak aurkeztu dituzte. Zehazki, hiri-espazioak, basoak eta naturaguneak mantentzeari buruzkoak dira.

Proiektuak enplegu eta prestakuntzarako jarduketa mistoak dira, bi fase dituztenak. Lehenengo prestakuntza-saioak bi hilabeteko iraupena izango du, eta bigarrenak, berriz, hamar hilabetekoa, orientazio eta laguntza pertsonalizatuko jarduerak barne hartzen dituena. Prestakuntzak irauten duen bitartean, parte-hartzaileek DBE edo BGD jasotzen jarraitu ahal izango dute, dagozkien baldintzetan, ez direlako diru-sarrera gisa zenbatzen. Bestalde, kontratazio-aldian, DBEa ez da etengo; aitzitik, prestazioen zenbatekoa diru-sarrera berrietara egokituko da, enplegurako pizgarriak aplikatzen direlako.

Dirulaguntza hauen helburua da luzaroko langabeziaren eragin handia duten EAEko udalerrri eta eskualdeetan pertsona horiek gizarateratzeko eta laneratzeko ibilbideak egiteko garatu beharreko jarduerari laguntza ekonomikoa ematea. 23. osagaiaren barruan sartzen da («Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»), Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plan Nazionalaren barruan.

Hori gauzatzeko, Lanbidek toki-erakundeek parte hartzea sustatu du, luzaroko langabeen kopuru handia duten eta aipatutako laguntzak jasotzen dituzten eremu geografikoetako erakundeetara zuzenduta.

## Lana eta Enplegua

### **LAN ETA ENPLEGU SAILAK LOGISTIKAREN SEKTORERAKO LANGILEAK KUALIFIKATZEA AZTERTU DU ARABAKO MERKATARITZA GANBERAREKIN**

Gobernu Kontseiluak lankidetzeta-hitzarmen bat onartu du gaur Arabako Merkataritzako, Industriako eta Zerbitzuetako Ganberarekin, Arabako Lurralde Historikoan logistikaren sektorerako langileak prestatzeko eta gaitzeko proiektu bat diseinatzeko, Bizkaia eta Gipuzkoari begira.

80.000 euroko zuzkidura izango du, eta Idoia Mendia lehendakariordeak zuzentzen duen Lan eta Enplegu Sailaren bidez gauzatuko da. Akordio horren bidez, Arabako Ganberak logistika-sektorearen egoera eta eremu horretako prestakuntza-eskaintza aztertu nahi ditu, sektoreak prestakuntzaren arloan dituen beharrak hauteman, eta langileen kualifikazioari buruzko proposamen espezifiko bat egin.

Logistikaren eta garraioaren sektorea jarduera ekonomiko estrategikoa da Euskal Autonomia Erkidegoan, eta pandemiaren aurretik eta pandemiak iraun duen bitartean, maila sozioekonomikoan eta enplegu-mailan kritikoa dela frogatu da, komunikazioen eta salgaien fluxuaren lotune gisa.

Lan eta Enplegu Saila, 2020-2024 legegintzaldiko programaren esparruan, enplegua sustatzeko ekimen ugari bultzatzen ari da, bai landunentzat, bai langabeentzat. Programa horiek pertsonen eta enpresen beharrei erantzuten diete, lehenengoen enplegagarritasuna eta jarduera ekonomikoen lehiakortasuna handitzeko, kualifikazioa hobetuz.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### EUSKO JAURLARITZAK HANDITU PROGRAMA MARTXAN JARRI DU, LEHEN SEKTOREAN INBERTSIO HANDIKO PROIEKTUEI LAGUNTZEKO

- 25 milioi euroko hornidura dago, eta tokiko eta eskualdeko ekonomiak eraldatzeko ekimen estrategikoak gauzatuko dira, baldin eta horien inbertsioak 6 milioi eurokotik gorakoa badira.
- Ukrainiako gudaren ondorioei aurre egiteko Erreskate Ekonomikorako Funtsaren barruan dago.

Eusko Jaurlaritzak inbertsio handiko proiektuak egiteko laguntzen deialdia onetsi du, nekazaritzako, abeltzaintzako eta basogintzako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko (HANDITU 2022 programa). Horren xedea da enpresa-lehiakortasunaren hobekuntza, Euskadiko elikakateari eta zurari lotutako baliabideen hobekuntza, enpresa-hazkuntza eta kalitatezko enpleguaren sorrera ahalbidetzea.

Laguntza horien finantzaziorako 25 milioi euro bideratu dira, inbertsio handiko ekimen estrategikoak sustatzeko. Ekimen horien bidez, tokiko eta eskualdeko ekonomiak bultzatu eta eraldatuko dira, dibertsifikazioa sustatu eta negozio-aukera berriak eratuko dira eta izaera teknologikoko azpiegitura handiak sortuko dira.

Laguntzak Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantza Tapiaren aginduaren bidez araututa daude, eta honako hauetara bideratuta: 6 milioi eurotik gorako inbertsioak, elikadura- eta baso-produktuak eraldatzera, garatzera eta merkaturatzera bideratuak, baita jatorrian nekazaritzarekin, arrantzarekin, akuikulturarekin, ur mineral naturalarekin, alkoholik gabeko edariek edo nekazaritza-produktuetatik hartzitutako edarien konbinazioa dutenekin lotutako produktuak ere (ardoa izan ezik).

#### **Diruz lagundu ahal diren jarduerak**

Zehazki, honako hauek izango dira diruz lagundu ahal diren jarduerak:

- Ondasun higiezinaren eraikuntza eta/edo erosketa, baldin eta lehenengo aldiz funtzionatzen hasten badira, edo, bestela, bigarren eskuko ondasun higiezinaren erosketa eta berritzea, baldin eta azken hamar urteetan ez badute jaso laguntzaren bikoizketa eragin ahal duen dirulaguntza nazional edo komunitariorik.
- Obra zibila eta/edo instalazio industrialak egiteko derrigorrezko ordainsari profesionalak, proiektuaren gauzatze materialaren % 8ra arte.
- Makineria erostea, instalazioak egitea eta ekoizpen-plantak ekipatzea (bulegoetako altzariak, ekipamendu bulegotikoa eta enpresaren funtzionamenduarekin lotutako informatika-programak



barne).

- Hobekuntzako, kalitateko eta ingurumen inpaktua murrizteko inbertsioak egitea, produktuen akreditazioa, ziurtagiria edo egokitzapena lortzeko, ekoizpen-prozesuen betetze tekniko-sanitarioari dagokionez.
- Hardware eta software sistemak, web/merkatartitza elektronikoko plataformak txertatzea, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) hartzea eta merkataritza elektronikoa ezartzea.

Eskaerak egiteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik, [euskadi.eus](http://euskadi.eus)-en egoitza elektronikora sartuta.

### **Ukrainiaren Erreskate Ekonomikoko Funtsa**

Laguntza hauek Ukrainian gudak izan dituen ondorioei aurre egiteko Erreskate Ekonomikoko Funtsaren barruan daude. Funtsaren xedea da tokiko inpaktu handia duten proiektuak eta inbertsioak bultzatzea.

Apirilaren 12an, Eusko Jaurlaritzak neurrien paketea onetsi zuen, Ukrainian gudak izandako ondorioei aurre egiteko. Paketearen balioa 200 milioi eurokoa da, eta, horietatik, lehen sektorean ekonomiak eraldatzeko eta sortzeko inbertsioetara bideratutako partida bat dago.

HANDITU programaz gain, esparru horren barruan, gobernu kontseiluan egokitzeko ezohiko laguntzak onetsi dira, haragi-abeltzaintzako sektoreetako ekoizleak egokitzeko. Euskadiri 907.000 € dagozkio FEAGA funts europarretatik, eta Eusko Jaurlaritzaren funtsen 1,8 milioiekin osatzen dira. Funts horiek Ukrainiako krisiari aurre egiteko neurri osagarrien planetik datoz, zeinak gobernu kontseiluak pasaden apirilean onetsi zituen.

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### BI MILIOI EURO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ETA BASOGINTZAKO ENPRESEN DIGITALIZAZIORAKO

- **Konponbide automatizatuen eta sistema robotikoen diseinuak, datuen tratamendua, plataforma digitalen garapena edo zibersegurtasuneko konponbideak finantzatuko dira, besteak beste.**
- **Berritasun gisa, hirugarren ildoak diseinatu da, elikadurari eta zurari lotutako balio-katean eragin handia duten proiektuentzat.**

Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, bere azken bileran, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburu Arantza Tapiaren agindua onetsi du. Horren bidez, digitalizazioko eta 4.0 teknologia txertatzeko proiektuen gastuak eta inbertsioak finantzatzeko laguntzen deialdia egiten da, Euskadiko elikakatearen eta zuraren lehiakortasuna hobetzeko eta baliabideak optimizatzeko. 2022 ekitaldirako zuzkidura bi milioi eurokoa da.

Laguntza horiei esker, elikadurari eta zurari lotutako balio-kateko enpresen lana errazten da; izan ere, enpresa horien tamainaren ondorioz, teknologia eta prozesu berriak txertatzeko prozesuak beste sektore industrializatuagoetan baino motelagoak dira, eta digitalizaziora egokitu behar dira.

Digitalizazioa, ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza herrialdeen garapen ekonomikorako adierazleak dira, eta produktibitateko, lehiakortasunerako eta hazkunde jasangarrirako funtsezko faktoreak. Euskadik azken hamarkadetan baterako ahalegin publiko-pribatua egin du espezializazio adimentsuko eta ezagutzaren gizartearen sustapeneko oinarrietan, eta, kasu honetan, laguntza honen argitalpenari esker, bi balio-kateak sustatuko ditu (elikadura eta zura).

### **Laguntza-ildoak**

Hiru laguntza-ildo ezartzen dira:

- **Enpresei digitalizatzen hastean laguntzeko.** Salto bat eman nahi duten eta sistema digitalak gehitu nahi dituzten pertsonak. Aukera izango dute zenbait zerbitzu finantzatzeko, hala nola digitalizazio-plan integralak, edo enpresaren jarduera-esparruetarako (kudeaketa, ekoizpena edo merkaturatzea, besteak beste) tresna digitalak txertatzeko.

Diruz lagundu ahal diren jarduerak izango dira, besteak beste, konponbide digitalak txertatzeko xedea duten diagnostikoak garatzeko jarduerekin, kudeaketa aurreratuko sistemak txertatzearekin, produktu bakoitzaren bizi-zikloa kudeatzearekin, merkataritza elektronikoa ezartzearekin, telelana sustatzearekin eta abarrekin lotutakoak.

- Digitalizazioko fase aurreratu batean dauden eta 4.0 teknologian sartu nahi duten enpresei laguntzeko.

Diruz lagundu ahal diren jarduerak izango dira, besteak beste, enpresen digitalizazio-egoeraren diagnostikoa eta azpiegituren garapena (hala nola biltegitratzeko, kontrolatzeko, alertak eragiteko, negozioaren analisirako eta txostenak sortzeko oinarritzko funtzionalitateak dituzten plataforma integratuak; zibersegurtasun-instalazioak eta lortutako tresnak martxan jartzeko beharrezko prestakuntza-jarduerak).

- Euskal Autonomia Erkidegoan elikadurari eta zurari lotutako balio-katean eragin handia duten digitalizazio-proiektuak sustatzeko

Digitalizazioko eragin handiko proiektu estrategikoak finantzatzen dira, balio-kateen hainbat kate-mailak parte hartzen dute, eskalagarritasun-maila dago eta 4.0 teknologiak txertatzen dira.

### **Aurkezteko epea**

Eskaerak egiteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik. Eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartuta eskuragarri dagoen eredu normalizatuari jarraituz aurkeztuko dira:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1207201>

## Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

### **EUSKADIKO MUGIKORTASUN ELEKTRIKOAREN ESTRATEGIA BERRIA, GARRAIOAREN DESKARBONIZAZIOA, IBILGAILU ELEKTRIKOAREN ETORKIZUNA ETA 2030EKO EKINTZA PLANAREN ARDATZAK AZTERTZEKO**

**Eusko Jaurlaritzak onartu duen Euskadiko Mugikortasun Elektroaren Estrategiak 1.550 - 2.340 M€-ko inbertsioa aurreikusten du 2030era arte, eta eragin handia izango du balio erantsian, enpleguan, enpresa-lehiakortasunean eta berrikuntzan. 2030erako automobil-parkearen % 16, hiri-autobusen % 50 eta taxien % 80 elektrifikatuta izatea planteatzen da. Estrategia berriak Euskadin karga azkarreko puntuen kopurua bikoiztea proposatzen du (50 kW-ko 80 karga-puntu, karga ultralasterreko terminalak dituzten 12 kokaleku), bai eta mugikortasun elektrikoko 15 proiektu abian jartzea ere Euskadiko automozioaren sektorean, eta, gainera, 10 proiektu teknologiko abiaraztea ibilgailu elektrikoaren errekargaren esparruan, ekimen pribatuak lideratuta eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta**

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak eta Energiaren Euskal Erakundeak egindako Euskadiko Mugikortasun Elektroaren Estrategia onartu du Jaurlaritzak gaur goizeko kontseiluan. Lan honen helburua da garraioaren sektorearen deskarbonizaziorako estrategiak, ibilgailu elektrikoari buruzko tokiko ikuspegiak eta ikuspegi globalak, mugikortasun elektroaren aurreko estrategien balorazioak eta 2030eko Ekintza Planaren ardatzak zehaztu eta aztertzea.

Mugikortasun elektrikoa Euskadiko ekonomia deskarbonizatzeko funtsezkoa den sektore bat egokitzeko bide urratzailea da. Horren garapenak Euskadin trantsizio energetikoa sustatzeko onurak ekarriko ditu epe erdira eta luzera. Onura horien arrazoia sare elektriko adimendunekin (smart grids) eta, hedaduraz, energia-sistema integratu osoarekin dituen sinergiak dira.

Baina mugikortasun elektroaren sektoreak argitu beharreko hainbat alderdi eta zailtasun ditu, eta legediak eta datozen urteotako estrategiak eta ekintza-planak oinarritzekoak izango dira eraldaketa horren norabidea erabakigarritasunez zehazteko. Aldaketak maila guztietan egingo dira: nazioartean, Europan, estatuetan, eskualdeetan, tokian eta herritarren esparruan.

Horregatik, gaur onartutako estrategiak Euskadiko mugikortasunaren magnitude eta adierazle nagusiak aztertzen ditu, hala nola, bertako automobil-parkea edo berotegi efektuko gas-emisioak (BEG), eta mugikortasun elektrikoak garraioaren deskarbonizazioan eta ekonomiaren jasangarritasuna areagotzean betetzen duen rola baloratzen du.

Garraio-sektorearen deskarbonizazioak Euskadiko industrian eta zerbitzuen sektorean balio erantsia, enplegua eta gaitasunak ezartzeko aukerak sortuko ditu. Guztiak ere, modu batera edo bestera, deskarbonizazioan aurrera egiteko erabil daitezkeen tresnei lotuta daude.

#### Helburuak, eraginak, ondorioak

Garraio-sektorea deskarbonizatzeko eta sektorean petrolioaren mendekotasuna gutxitzeko helburua Eusko Jaurlaritzaren hainbat konpromisotan dago jasota: Klima 2050 Estrategia, Euskadiko Energia Estrategia 2030 eta Garraio Jasangarriaren Plana. Horietan hiru ardatz jasotzen dira garraioa deskarbonizatzea lortzeko: energia-efizientzia areagotzea; mugikortasun- eta garraio-zerbitzuen erabilpena arrazionalizatzea eta optimizatzea; eta erregai eta bektore energetiko deskarbonizatuak erabiltzea. Eta honako proposamen zehatz hauen bidez:

- Intermodalitatea eta emisio gutxiko (BEG) garraio-moduak bultzatzea.
- Petrolioaren deribatuen kontsumoa ordezkatzeta.
- Zaurgarritasun-irizpideak eta egokitze-irizpideak txertatzea garraio-azpiegituretan.
- Errekarga-azpiegitura publikoa garatzea lurralde osoari estaldura emateko.
- Zirkulazioan dauden ibilgailu elektrikoaren masa kritikora iristea eta araudia egokitzea mugikortasunean teknologia elektrikoa sartzea errazteko.

Orain, Euskadiko Mugikortasun Elektrikoaren Estrategiak beste urrats bat ematen du eta 2030erako hurrengo helburuak ezartzen ditu:

#### Mugikortasunaren elektrifikazioa

- » Automobil-parkearen % 16 elektrifikatuta
- » Hiri-autobusen % 50 elektrifikatuta
- » Taxien % 80 elektrifikatuta

#### Karga-azpiegituren ezarpena

- » Karga azkarreko puntuen kopurua bikoiztea Euskadin: 50 kW-eko 80 karga-puntu.
- » Karga ultralasterreko terminalak dituzten 12 kokaleku

#### Garapen teknologikoa eta industrialia

- » Mugikortasun elektrikoaren 15 proiektu automozioaren sektorean, ekimen pribatuak lideratuta eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta.

» Izaera teknologiko nabarmeneko 10 proiektu ibilgailu elektrikoaren errekargaren esparruan, ekimen pribatuak lideratuta eta Eusko Jaurlaritzak lagunduta.

Mugarri horietara iristeko, Eusko Jaurlaritzak 1.550 - 2.340 M€-ko inbertsioa aurreikusten du, eta eragin handia izango du balio erantsian, enpleguan, enpresa-lehiakortasunean eta berrikuntzan.

Euskadiko Mugikortasun Elektrikoaren Estrategiak Euskadiko garraio-sektorearen ezaugarriak eta sektorea nazioarteko, Europako eta estatuko testuinguruan deskarbonizatzeko mugikortasun elektrikoa aztertzen ditu, bai eta ibilgailu elektrikoaren aukerak ere. Agiriak kontuan ditu mugikortasunaren arloko Euskadiko aurreko estrategiak, 2030 Ekintza Plana eta proiektuak behar bezala gauzatzeko behar den gobernantza.

Lanaren ondorioetan nabarmentzen denez, mugikortasuna garrantzizko eraldaketa-une batean dago. Garraioa deskarbonizatu beharrak eta ekonomiaren digitalizazioa areagotu izanak joera berritzaileak eta sektorean eragile berriek parte hartzea ekarri dituzte. Horrek marrazten duen agertokiko mugikortasun-eredu berriak jasangarriak ez ezik anitzak eta dinamikoak ere izango dira.

Europako merkatuan bizkortzen ari da ibilgailu elektrikoaren bidea. Epe erdira (2026), bateriadun ibilgailu elektrikoak (Battery Electric Vehicle - BEV) barne-errekuntzako motordun ibilgailuak baino merkeagoak izango dira, Internal Combustion Engine – ICEren arabera.

Bilakaera horren baitan (garraio deskarbonizatua, partekatua, autonomia, azken miliakoa, etab.) mugikortasun elektrikoa izendatzaile komun argia da. Eta Euskadik ibilgailu elektrikoaren balio-kateko maila nagusietan ditu enpresak.

## Hezkuntza

### JOSE URUÑUELA UDAL DANTZA KONTSERBATORIOA IKASTETXE PUBLIKOEN SAREAN SARTZEN DA

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Hezkuntzako sailburuaren proposamenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrari Gasteizko baraualdiarekin hitzarmen bat sinatzeko baimena ematen dion lege-proiektua onartu du, Jose Uruñuela udal dantza-kontserbatorioa integratzeko.

Lege-proiektu honen helburua José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala Eusko Jaurlaritzaren menpeko ikastetxe publikoen sarean sartzea da.

José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala da Dantzako Irakaskuntza Artistiko aratuak emateko baimena duen ikastetxe bakarra –publikoa edo pribatua–, eta titularra Gasteizko Udala da, eta hori, egia esanda, nahiko berezia da, zeren, Autonomia Estatutuan xedatutakoaren arabera, EAEko Administrazio Orokorrak baitu irakaskuntza-eskumena, bere zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan. Izan ere, Gasteizko Udalak berak behin baino gehiagotan planteatu du Dantza Kontserbatorioko irakaskuntza aratuak irakaskuntzaren arloan eskumena duen administrazioari –hau da, Eusko Jaurlaritzari– eskualdatzea komeni dela.

Bestalde, 2015-2016 ikasturtean hasi zen «Dantzerti» Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskola, Eusko Jaurlaritzaren mendeko ikastetxe publikoa, Dantzako Goi-mailako Arte-irakaskuntzak ematen dituena. Nolabait esateko, dantzako irakaskuntzei dagokienez, José Uruñuela Dantza Kontserbatorio Profesionala Dantzerti Euskadiko Arte Dramatiko eta Dantza Goi Eskolaren harrobi naturala dela esan daiteke, eta, horregatik, Eusko Jaurlaritzak interesa du –eta baita betebeharra ere– Dantzako Oinarrizko Irakaskuntzetan eta Irakaskuntza Profesionaletan hezkuntza-eskaintzari eusteko Erkidegoan.

Azken finean, Jose Uruñuela Dantza Kontserbatorioaren transmisioak, neurri batean, anomalia zuzentzea dakar: tokiko erakunde bati laga den irakaskuntza arautu baten hezkuntza-eskumena berreskuratzea.

## Hezkuntza

### **1,4 MILIOI EURO PERTSONALA IRALE PROGRAMAN DUTEN IKASTETXE PRIBATUETARAKO**

Gobernu Kontseiluak agindu bat onartu du gaur, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Irale programan irakasle liberatuak dituzten ikastetxe pribatuentzako 2022ko laguntzen deialdia argitaratzeko.

1.443.000 euroko zenbateko globala duten diru-laguntza horiek, euskara ikasteko liberatutako irakasleak ordezkatzearen ondoriozko gastuak diruz laguntzea dute helburu. Plazaren jabeak eta ordezko irakasleak titulazio berdina izango dute, edo bateragarria.

Honako hauek parte hartu ahal izango dute deialdi honetan, 2022. urtean (urtarrila-ekaina, iraila-abendua) irakastordu barneko ikastaroetarako Hezkuntza Administrazioak liberazioak ematerakoan irakasle bat edo gehiago onartu zaizkien ikastetxe pribatuek.

Hezkuntza Sailak lauogeikoen hamarkadan ekin zion irakasleak euskaldundu edo alfabetatzeko lanari. Irakasleak hizkuntzetan gaitzeko IRALE programak, beraz, hiru hamarkada baino gehiagoko ibilbidea egin du dagoeneko. Guztira 80 irakasletik gora ari da bertan, bost irakastegitan (Bilbon bi eta Donostian, Gasteizen eta Eibarren bana), eta kanpo-euskaltegien laguntzaz osatzen du bere eskaintza.

Urteek aurrera egin ahala hezkuntza-sisteman irakasleen hizkuntza-gaitasunean izan den aldaketa tipologikoak behar berriak sortu ditu, hasierakoekin alderatuta erabat desberdinak. Horregatik, IRALEK egun eusten dio oraindik ere irakasleak euskalduntzeko helburuari, baina haien hizkuntza gaitasuna sendotzeak hartzen du programaren zatirik handiena, izan sare publikoko zein itunpeko ikastetxeetako irakasleak. Horrekin batera, irakasleak hizkuntzaren didaktikan eta metodologietan gaitzeaz eta hauei prestakuntza sozio-kulturala emateaz ere arduratzen da. Era berean, euskarazko ikasmaterialen hizkuntza-kalitatea bermatzeko lanetan ere parte hartzen du, materialak edukiz, moldaera tekniko eta hizkuntza-trataeraz egokiak izan daitezen bermatzeko.



## Hezkuntza

### **999.753 EURO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ENPRESETAKO EGONALDIETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2022-2023 ikasturtean iraila-martxo bitarte Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua egingo duten Lanbide Heziketako ikasleentzako enpresako egonaldiarentzako beken deialdia egiten duen Agindua.

Era honetan, eta deialdi honen bidez, laguntza hau jasotzen duten ikasleek aukera izango dute, beste hiru hilabetez, Lantokiko Prestakuntza modulua egin duten enpresan bertan egonaldia luzatu ahal izateko, aipaturiko modulua amaitu ondoren eta martxoan ebaluatu bitartean.

Laguntza hauek norgehiagokako lehian deitzen dira, eta orotara 999.753 euroko diru-kopurua dute. Hezkuntza Sailak 487 laguntza emango ditu deialdi honen bidez, eta onuradun bakoitzak 1.800 euroko kopurua jaso ahal izango du gehienez (600 euro hileko). Laguntzak bere barne hartzen du, onuradunak hileko jasoko dituen 600 euroez gain, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea ere.

Deialdi honen onuradun izateko, ikasleak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Euskadiko Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bateko bigarren mailan matrikulatua izatea 2022-2023 ikasturtean, eta irailetik-abendurako epean Lantokiko Prestakuntza modulua egitea.
- Enpresak interesa izatea ikasleak egonaldia bertan egiten jarrai dezan.
- 30 urte baino gehiago ez izatea 2022ko abenduaren 31n

### **Lantokiko Prestakuntza modulua**

Lanbide Heziketako ziklo guztiek dute, bigarren mailako ikasketa planean, Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua. Enpresako ingurune errealean burutzen den prestakuntza praktikoa da hau, eta ikasten ari den heziketa zikloak dituen gainerako modulu guztiak gainditu ondoren egin ohi du ikasleak.

Deialdi honen helburua da, egonaldia beste hiru hilabete ere luzatzeko aukera ematen duenez, Lanbide Heziketako ikasleentzako gaitasun profesionalak hobetzea, bai teknikoak eta baita zeharkakoak ere. Era horretan, ikasleei enplegagarritasuna eta lanerako sarbidea ere hobetu egiten zaizkie, titulua eskuratzen dutenerako.

## Hezkuntza

### **640.000 EURO IKASTETXEKO BERRIKUNTZA-PROIEKTUETARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitateaz kanpoko itunpeko ikastetxe pribatuei, Lanbide Heziketa soilik ematen duten ikastetxeei izan ezik, 2022-2023 ikasturtean ikastetxean (Berrikuntza Ikastetxean) hainbat berrikuntza-proiektu egiteko deialdia egiten dien agindua onartu du.

Agindu honen xedea da diru-laguntzak ematea 2022-2023 ikasturtean ikastetxean berrikuntza-proiektu hauetakoren bat (Berrikuntza Ikastetxean) egiten duten unibertsitatez kanpoko edozein maila eta irakaskuntza mota ematen duten itunpeko ikastetxe pribatuei, Lanbide Heziketa soilik ematen dutenei izan ezik:

- Ikastetxeko berrikuntza-proiektuak, ikastetxeak honako arlo hauekin lotuta antzemandako premiekin lotutakoak:

- Digitalizazio-arloa
- Curriculum garatzeko arloa.
- Berrikuntza Arloa bizikidetzaren, ongizate emozionalaren eta aniztasunaren eremuan.

- Ikastetxean hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuak.

Deialdiaren zenbateko orokorra 640.000 eurokoa da, honela banatuta:

- 512.000 euro ikastetxeko berrikuntza-proiektuetarako, lurraldeka honela banatuta, 102.400 euro Araban, 256.000 euro Bizkaian eta 153.600 euro Gipuzkoan.

- 128.000 euro ikastetxeko hezkuntza berriztatzeko prestakuntza-proiektuetarako, lurraldeka honela banatuta, 25.600 euro Araban, 64.000 euro Bizkaian eta 38.400 euro Gipuzkoan.

## Hezkuntza

### **343.750 EURO STEAM HEZKUNTZAKO BERRIKUNTZA-PROIETUAK GARATZEKO**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, itunpeko ikastetxeek 2022-2023 ikasturtean STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak gara ditzaten dirulaguntzak ematen dituen Agindua.

343.750 euroko diru kopurua duen deialdi honen helburua da, Euskadin Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa ematen duten itunpeko ikastetxe pribatueetan 2022-2023 ikasturtean STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektuak garatzea (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics).

Hezkuntza Sailaren STEAM Euskadi Estrategiaren helburuak honako hauek dira: hezkuntza-etapa guztietan hezkuntza eta prestakuntza zientifiko-teknikoa sustatzea, horretarako eragile sozioekonomikoak inplikatur; STEM eremuan bokazio eta asmo profesionalak inspiratzea, arreta berezia jarriz neskei; eta euskal herritarren artean dibulgazio eta kultura zientifiko-teknologikoa sustatzea.

Laguntza hauek eskuratzeko interesa duten ikastetxeek STEAM hezkuntzako berrikuntza-proiektu bat aurkeztu beharko dute, 2022-2023 ikasturtean beren geletan garatuko dutena. Proiektu horiek gorago adierazitako helburuak bete beharko dituzte. Proiektuen ezaugarrien artean, aipatzekoa da, ikasleei ebatzi beharreko erronka edo arazo bat planteatzen dieten egoeretan oinarrituko direla proiektuok, bizitzako hainbat arloekin lotuta (pertsonala, soziala, globala, lanekoa). Gainera, honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan: ikasgaien irakaskuntza integratua (diziplinartekotasuna), STEAM eremuari lotutako gaitasunen garapena, ikerketan/arakatzean oinarritutako ikaskuntza, genero ikuspegia, ekitatea, eta STEM lanbide-bokazioetan oinarritutako ikaskuntza.

Hezkuntza Sailak 2014-2015 ikasturteaz geroztik luzatzen die era honetakoko deialdia ikastetxe publikoei, euren STEAM hezkuntza-proiektuak gara ditzaten. Joan den ikasturtean, 2021-2022 ikasturtean, itunpeko ikastetxeentzako lehenengo deialdiaren bidez, sare horretako eskolek aurkeztutako 84 proiektu finantzatu dira.

## Osasuna

### EUSKO JAURLARITZAK OSASUN PUBLIKOAREN LEGE PROIEKTUA ONARTU DU, EUSKADI EUSKAL HERRITARREN OSASUNA ZAINTEKO ETA SUSTATZEKO LEGE-ESPARRU EGUNERATU BATEZ HORNITZEKO

- **Lege-proiektuaren bidez, euskal gizartearen osasun-arloko premia eta eskari berriei erantzun eraginkorra eta integrala emateko lege-esparru batez hornitu nahi da Euskadi**
- **“Osasuna politika guztietan” eta “osasun-arloko desberdintasunak eta desparekotasunak murriztea”, Lege Proiektuaren edukian txertatuta dauden bi kontzeptu**

Gobernu Kontseiluak Osasun Publikoaren Lege-proiektua onartu du gaur. Lege-proiektu horren helburu nagusia da euskal herritarren osasuna interes goreneko ondasun publiko gisa babestea eta sustatzea, eta pertsonen osasunaren, aukera-berdintasunaren eta ekitatearen arloetan dituzten eskubideak bermatzea.

Hortaz, Osasuneko sailburu Gotzone Sagarduik azpimarratu duenez, Eusko Jaurlaritzaren legegintza-egutegian bere gain hartutako konpromisoa beteko da. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarrera igorriko du aurreproiektua, eztabaidatu dadin eta, hala badagokio, **Euskadin osasun publikoa espezifikoki arautuko duen lehen legea** izango litzatekeena onartu dadin.

Legearen asmoa, hain zuzen ere, **Euskadi** egungo euskal gizartearen **premia eta eskari berriei erantzun eraginkorra eta integrala ematea ahalbidetuko duen lege-esparru batez hornitzea da**. 25 urte hauetan, “osasun publiko” kontzeptuak berak bere bilakaera izan du, eta osasun-sistematik osasunaren determinatzaileetan eragina duten gainerako esparruetara hedatu da. Ildo horretan, COVID-19aren pandemiak guztiz agerian jarri du dimentsio berri hori.

Lege-proposamenak Eusko Jaurlaritzaren ekintzaren zutabeetako bat den *osasuna politika guztietan* printzipioan sakontzen du osasunaren determinatzaileetan eraginkortasun handiagoarekin jarduteko, eta argi eta garbi zehazten ditu esparru horretako eskumenak, prestazioak eta zerbitzuak.

Horren ondorioz, **Euskadiko Osasun Publikoko Sistema** sare egituratua izango da, osasun-sistemeekin eta administrazio publikoekin koordinatua, eta koordinatzeko eta parte hartzeko bi organo izango ditu. Alde batetik, **Osasun Publikoaren Euskal Kontseilua** egongo da. Honako hauek dira osatuko dutenak: unibertsitateak, Emakunde, GKEak, kontsumitzaileak, Osakidetza, komunikabideak, Gazteriaren Kontseilua, pentsiodunak eta erretiratuak, auzo-elkarteak eta gizarte zibilaren gainerakoa. Eta, bestetik, **Osasun Publikoaren Erakunde arteko Batzordea**; osasunean eragina duten Eusko Jaurlaritzako sailen, udalen eta foru-aldundien artean koordinatzeko foroa izango da.

## 96 ARTIKULU 7 KAPITULUTAN

Proposatutako testua 7 kapitulutuan banatutako **96 artikulutan** egituratuta dago. Horiez gain, 3 xedapen gehigarri, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile 1 eta 3 azken xedapen daude. Testuak, nolanahi ere, Euskadiko Osasun Publikoko Sistemaren **funtzio eta jarduketa** nagusiak zehazten ditu.

Laburbilduz, honako hauek dira:

- Herritarren osasunaren eta ongizatearen **zaintza**; horretarako, Osasun Publikoaren Zaintza Sarea izango da funtsezko tresna.
- Osasun-arazoan **prebentzioa**. Halaber, espezifikoki, adikzioen eta mendekotasunen prebentzioa.
- Osasunaren **sustapena**, gizarte-determinatzaileetara zein jokabide osasungarri indibidualetara bideratua.
- Osasunaren **babesa**, elikadura-segurtasuna eta ingurumen-osasuna barnean hartuta.
- Osasun-larrialdietan** jardutea.
- Eskola-osasuna**.
- Lan-osasuna**.
- Euskadiko **osasun publikoko laborategia**.
- Osasun publikoaren arloko informazioa eta **ezagutzaren** hedapena.
- Prestakuntza, ikerketa eta berrikuntza**.
- Osasun-agintaritza** baliatzea, kontrola eta zehapenak barnean hartuta.

Osasuneko sailburuak beren **alegazioekin eta iradokizunekin** aurreproiektuaren testua nabarmen hobetzen lagundu duten hainbat estamenturen –Udala, estamentu sindikala, akademikoa, profesionala, partikularra, Legebiltzarra eta Osalan– konpromisoa eta ekarpena azpimarratu eta eskertu nahi izan ditu, eta, gaineratu duenez, Eusko Legebiltzarreko eztabaida **euskal herritarren ongizatean hainbesteko garrantzia eta eragina izango duen legea** are neurri handiagoan hobetzeko baliagarria izango delakoan dago.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### ARTOLAZABAL SAILBURUAK EUSKADI 2022-2025 JUSTIZIA ERRESTAURATIBOAREN ESTRATEGIA AURKEZTU DU

- **Eusko Jaurlaritzak errestauratibo-programak eskainiko ditu preso guztientzat, delitu-mota edozein dela ere**
- **Biktimen eta kaltegilen diskreziotik eta borondatetik egindako lana da**

Beatriz Artolazabal sailburuak gaur, asteartean, Urkullu lehendakaria buru duen gobernu-kontseiluari jakinarazi dio 2022-2025 Euskadirako Justizia Errestauratiboaren estrategia onartu duela, eragile juridikoekin, mundu akademikoarekin, gizarte-erakundeekin eta biktimen taldeekin kontraste-prozesu bat egin ondoren.

